



enplegua



aukera
berdintasuna



sektore
publikoa



babes soziala



erabakitzeke
eskubidea

aldaketa euskaraz,
pauso bat harago



Administrazio eta zerbitzu publikoetarako
hizkuntza politika berria



2011

AURKIBIDEA

Aurkezpena.....	5
Euskara zerbitzu publikoetan. Aldaketaren bidean pauso bat harago.....	6
Euskararen egoera.....	6
ELEANIZTASUNAREN DISKURTSO DEMAGOGIKOA ETA PRAKTIKA KONTRAJARRIA.....	6
• Diskurtsoa eta praktika.....	6
• Ofizialtasuna eta babes juridikoa.....	7
• Gaitasun maila nahikorik ez.....	8
• Normalizazioa = gastua.....	8
ZERBITZU PUBLIKOAK EUSKARAZ ERE ESKAINTZEN DIRENAK.....	8
• Herri administrazioen garrantzia.....	8
• Aukera berdintasuna. Hizkuntza aukeratzeko askatasuna.....	9
Euskal Herriko administrazio eta zerbitzu publikoetako hizkuntza politika.....	10
1. OFIZIALTASUNA.....	10
2. KALITATEKO ZERBITZU PUBLIKO DEMOKRATIKOA.....	10
3. BENETAKO EUSKARA GAITASUNA BERMATU.....	10
4. EUSKARAZ ERE ESKAINTZEN DIREN ZERBITZUAK BERMATU ETA EGONKORTU.....	11
5. ETORKIZUNEKO INBERTSIOA DIRA EUSKARA NORMALIZATZEKO ERABILIKO DIREN DIRU ETA GIZA BALIABIDEAK.....	11
6. NORMALIZAZIO PLANAK BITARTEKOAK IZANGO DIRA ETA EZ HELBURUA.....	12

Aurkezpena

Euskararen normalizazioa LABen helburu estrategikoen artean egon da gure sorreratik. Helburu horren aldeko lana eta borroka iraunkorra izan da sindikatuaren jardunean. Konstituzioek eta Euskal Herriaren lurralde zatiketak euskararen marko legalak eta marko horien barneko hizkuntza politikak definitu eta mugatu dituzte. LABen jarrera horien aurreko aurkakotasun garbiarena izan zen hasieratik. Izan ere, euskararen izaera ofiziala eta euskal herritarren hizkuntza eskubideak ez ziren bermatuak eta menpeko egoera iraunarazteko baldintza guztiak ematen ziren.

Bereziki garrantzitsua izan zen hasieratik administrazio eta zerbitzu publikoetan, irakaskuntzaren eremuarekin batera, euskararen normalkuntza behar bezala bideratzeko ahalegina. LABek bestelako legeria eta hizkuntza politikaren aldarrikapena egin zuen, Iruñea eta Gasteizko legebiltzar eta gobernuetatik indarrean jarritakoen aurrean. Orduan egindako lanak eta borrokek marko eta politika horien mugak agerian jarri dituzte hamarkada hauetan eta haien agortzean lehen mailako garrantzia izan dute.

Pixkanaka, ordea, politika horiek egunerokoa markatu dute eta lantokiz lantoki zein ildo orokorrean LABen jarduna aukera eta zirrikitu guztien ustiatzean eta euskararentzat irabazitako posizioen defentsan kokatzen joan da.

Orokorrean gertatzen den bezala, aldiz, euskararen normalkuntzaren ikuspegitik egungo marko juridiko politikoek eta indarrean dauden hizkuntza politika ezberdinek eman dituzte bereak. Ezarritako mugak begien bistakoak dira, baita ere hizkuntza eskubideek egunerokoa pairatzen dituzten urraketak. Administrazio eta zerbitzu publikoak ezarritako politikak eta hauetatik eratorritako plangintzek porrot izugarria izan direla ikusteko adibiderik garbiena dira. Aldaketa politikoaren garaia da.

Eztabaida horretan ari dira EAJ eta PSOE inguruetan azkenaldian. Eta inizatiba markatzen ari dira. Duela 30 urte ezarritako marko eta politiken aurkako erresistentzia ideologikoa gaurko egunera ekarri beharrean gaude, erresistentzia izan zen hartatik euskararen normalkuntzarako aldaketa politikoaren aitzindaritza markatuz. Administrazio eta Zerbitzu Publikoetan euskararen normalkuntza lortzeko ildo eguneratu beharra dugu sindikatuan. Egungo egoeraren konponbidea posible dela eta alternatiba egingarria dela erakutsi behar dugu. Orokorrean gertatzen den bezala, aldaketa badator, aldaketaren norabidea da jokoan dagoena eta guk gure lana egin beharra dugu.

Maila politiko eta diskurtsiboan euskararen normalkuntza osoa erdiesteko baliagarriak diren ildoaren oinarri ideologikoak eta soziolinguistikoak berreskuratu, eguneratu eta eztabaida politikoaren erdian berriz ere kokatzeko saioa egiteko premia dugu. Eta lantxo honek bide horretan eragin nahi du, gure norabidea maila horretan kokatuz eta eman beharreko urratsen zentzua zehaztuz

Euskara zerbitzu publikoetan.

Aldaketaren bidean pauso bat harago

Euskararen egoera

Hizkuntza komunitate txikia da gurea: hiztun guztietatik %25,7 baino ez da elebiduna, %15,4 elebidun hartzailea, %58,9 erdaldun elebakarra.

Gutxiengo batek erabiltzen duen hizkuntza da euskara, beraz; hala ere, bere egoera ahulean eragiten duten faktore nagusiak beste bi dira, batez ere: hizkuntza gutxitua izatea eta diglosia egoeran egotea.

Hizkuntza gutxitua dela diogu, gutxitze prozesu kontziente baten ondorioz murriztuz joan delako. Prozesu hau agerikoa izan da, debekuz, edota de facto, euskararen presentzia hainbat esparrutan -bai eta euskararen existentzia bera ere- ez onartuz. Beraz, euskara gutxitutako hizkuntza daukagu eta euskaldunon komunitatea gutxiengoan gaude.

Euskal Herrian diren beste hizkuntzek, gaztelera eta frantsesa, alegia, lurralde zabalagoak hartzen dituzte: Espainiar eta Frantziar estatuak osorik, gehi munduko beste estatu eta komunitate batzuk. Euskararen kasuan, ordea, bere lurralde propio eta bakarra Euskal Herria da, baina hau gaztelera eta frantsesarekin partekatu behar du.

Hizkuntza handi bi hauekin partekatzeko modua diglosia egoera da. Hau da, euskara eta erdara diskriminatuki erabiltzen dira funtzio ezberdinetarako eta, diglosia egoeran dauden bestelako hizkuntza gutxituei gertatu bezala, euskarari hainbat funtzio, batez ere publikoak, galarazten zaizkio. Euskal hiztunok geure etxean atzerritarrak gara.

Administrazio publikoetan euskaldunok, bai langileok, bai erabiltzaileak, erdara erabiltzera behartuta ikusten dugu geure burua eta honek alde bitako ondorioa dauka: erdara prestigioz janzten den bitartean, euskara arlo pribatura zokoratzen da. Honela, euskararen erabilera administrazio publikoan diskriminatzen den heinean, diglosia egoera betikotzen da. Bai gaztelera bai frantsesak beti izango baitute estatus altuagoa: bai soziala bai politikoa.

ELEANIZTASUNAREN DISKURTSO DEMAGOGIKOA ETA PRAKTIKA KONTRAJARRIA

• Diskurtsoa eta praktika

Aspaldi honetan eleaniztasunaren aldeko diskurtsoa aski zabaldua dago mendebaldeko jendarte modernoetan. Diskurtso politikoki zuzena omen da: hizkuntza oro ondare moduan ulertu behar dira, beraz, bat ere ez da baztertu behar eta, horretarako, administrazioen funtzioa hizkuntza guztiak babestea da. “Elkarbizitza orekatua” aurkitzea omen da gakoa.

Diskurtso itxuraz onargarria bada ere, “elkarbizitza orekatu” horrexek zabaltzen dizkio ateak guztiz kontrajarriak diren praktikak burutzeari. “Oreka” faltsu horren atzean ez dago asmorik gutxitze prozesua behingoz eteteko, baizik eta egoerari bere horretan eusteko: hau da, erdara lehen mailako hizkuntza moduan eta euskara bigarren mailara

kondenatuta. Honela, helburua ez da komunitate elebiduna lortzea; “oreka” momentu honetan existitzen den norbanakoen errealtate linguistikoari lotzen zaio: hiztun gutxiago, hizkuntza horren premia gutxiago, eskubide gutxiago.

Arlo politikoan hainbat eremutan jorratzen den diskurtso antzekoa topatzen dugu hizkuntza gatazkari dagokionez ere. Espainiar nazionalismoa neutrotzat hartzen den bitartean, abertzaletasuna gailendu nahi den inposaketari lotzen zaio. Era berean, gatazka linguistikoan erdara hizkuntza neutrotzat hartzen da, hau da, irizpide politikorik gabekotzat, eta euskara zuzen lotzen zaio inposaketari.

Diskurtsoak eleaniztasuna aldarrikatzen duen bitartean, erdarari hizkuntza “komun” izaera aitortzen zaio eta, era berean, hiztun gutxiago – premia gutxiago – eskubide gutxiago irizpidearen arabera, euskararen ezagutza gutxi batzuek inposatu nahi duten gauza bihurtzen dute praktikan.

Askotan sinestarazi nahi digute hizkuntzaren funtzioa mezuak komunikatzea baino ez dela eta, beraz, berdin dela erdaraz zein euskaraz egitea. Horren arabera, elebidunok hizkuntza bietan aritzeko gain garen heinean, berdin eman beharko liguke batean zein bestean. Baina euskaraz aritu ahal izateko eskubidearen aldarrikapena ez da apeta hutsa.

Hizkuntzak mezuak komunikatzeko baino askoz gehiagorako balio du. Hizkuntzek zentzu eta konnotazio sozialak, sentimendu eta balio kulturalak, transmititzen dituzte. Zentzu soziala daukate, beraz. Hizkuntza baten estatusa gutxietsiz, hizkuntza horretako hiztunen estatus soziala gutxiesten da. Sozialki maila baxuagokotzat jotzen diren neurrian, estigmatizatu egiten dira.

• **Ofizialtasuna eta babes juridikoa**

Euskarak hiru izaera juridiko-administratibo ezberdinen menpean bizi behar du. Honen ondorioz, euskarak eta, hortaz, herritar euskaldunok, eskubide ezberdinak ditugu bizi garen Euskal Herriko eremu geografikoaren arabera.

Muturreraino heltzen da egoera hau Frantziar Errepublikaren kasuan eta Nafarroako eremu handi batean, non herritar euskaldunok eskubide guztiak ukatuak dauzkagun, euskararen existentzia bera ukatua baitago.

Euskarak nolabaiteko ofizialtasuna onartua duen eremuetan, Nafarroako zati batean eta Araba, Bizkaia zein Gipuzkoan, ofizialtasun hau asimetrikoa da. Horrek zera esan nahi du, gaztelera eta frantsesa maila eta eremu guztietan ofizialak direla eta erdal herritarrei eskubideak zein betebeharrak onartzen zaizkiela; euskarari, ordea, onartzen zaion ofizialtasuna erdararen menpekoa da eta, hortaz, euskaldunei eskubide batzuk onartzen zaizkie baina ez betebeharrak. Honela, euskarak, ofiziala den eremuetan ere, bigarren hizkuntzaren estatusa dauka

Egoera honek ondorio zuzena dauka administrazioari dagokionez, herri administrazioetan lan egiteko eta zerbitzua eskaintzeko: gaztelaren edo frantsesaren ezagutzak betebeharrak izaera dauka eta euskarak, ordea, maila juridikoan eskubide kategoria baino ez du. Honela, eskubidea den heinean, botere politikoek ez dute betebeharrak. Ahal denean eta ahal bada, neurriak hartuko lituzkete eskubide hori gauza dadin, baina beti ere bigarren mailako zeregin moduan.

Beraz, babes juridiko ezak ahalbideratzen du egoera hau. Babes juridiko osoa eskuratzea ezinbesteko urratsa da normalizaziorako, hizkuntza gutxituek ez baitaukate botere politikoak eskaintzen duen babes juridiko osorik.

• **Gaitasun maila nahikorik ez**

Erdara eta euskararen artean normaltasunez eta arazo barik aukeratu ahal izateko, hizkuntza bietan gaitasun maila egokia izan behar dute hiztun elebidunek eta herri langile elebidunek.

Begi bistakoa da herri administrazioetan zerbitzu publikoa euskaraz ere modu normalizatuan eskaini ahal izateko, euskara gaitasun egokia behar dutela langileek zein arduradunek. Gaitasun maila hau erdararen ezagutza mailaren parekoa izan beharko litzateke gutxienez.

Hala ere, euskararen kasuan –euskarak nolabaiteko presentzia aitortua daukan Euskal Herriko eremuetan- hizkuntza eskakizun ezberdinak mailakatzen dira funtzioen arabera. Horrek ez du bermatzen herri administrazioetan euskararen erabilera, ez zerbitzu hizkuntza moduan ez eta lan hizkuntza moduan ere.

• **Normalizazioa = gastua**

Euskararen gutxitze prozesuari amaiera eman eta normalizazioarekin zerikusia daukan guztia albo batera uzteko erabiltzen den irizpidea edo, hobeto esanda, aitzakia, behin baino gehiagotan hori alferrikako diru gastua dela izaten da. Normalizaziorako urratsak eta ekimenak ezertarako balio ez duen diru gastutzat hartzen dira. Hizkuntza hautua egiteko beste modu bat baino ez da, hautu politikoa.

Aginte politikoak, bere buruari demokratiko deitu nahi badio behintzat, eskubideen demokratizaziorantz egin beharko lituzke pausuak. Eta horretarako ahal duen guztia egin beharko luke, behar diren baliabide guztiak erabilia.

ZERBITZU PUBLIKOAK EUSKARAZ ERE ESKAINTZEN DIRENAK

• **Herri administrazioen garrantzia**

Estatu zentralistotik eratu ziren herri administrazioak gaztelaniaz edo frantsesez eratu ziren beren garaian eta, administraziook Estatu horien bermea diren heinean, Espainiak, Frantziak eta Euskal Herriko unionistek linguistikoki ere ez dute nahi herri administrazioetako eremu linguistikoa euskararekin partekatu.

Euskararen normalizazioa Euskal Herriko herri administrazioetan ezinbesteko funtsa da arrazoi nagusi birengatik:

- Lehenik eta behin, hizkuntza gutxituetan zerbitzuak ematea funtsezkoa da hizkuntza horien biziraupenerako. Jendarte modernoetan administrazio publikoekiko interaktuakzioa maiz gertatzen da. Euskaraz komunikatzea eragozten denean eta erdarazko komunikazioa inposatzen denean, euskararen erabilgarritasuna murrizten da, alde batetik, eta, bestetik, aipatu dugunez, euskara bizi pribatura zokoratu eta euskaldunok estigmatizatuak izaten gara.
- Bigarrenez, botere politikoak esparru estrategikoak kontrolatu behar ditu bere irizpideak ezartzeko: irakaskuntza, justizia, komunikabideak eta, zelan ez, administrazio publikoa. Esparru estrategiko horien bitartez herriak egituratzen, ezaugarritzen eta moldatzen joaten dira. Asmo politiko argia daukan hautua da administrazioetan euskara normalizatzea ala ez.

Zerbitzu publikoak, benetan publiko, demokratiko eta unibertsalak izateko, euskaraz ere eskaini beharrekoak dira. Hori lortzea, ikusi dugunez, ezinezkoa izango da

momentura arte burutu diren eta burutzen ari diren administrazioetako hizkuntza politikekin.

Euskal Herriko administrazioek hizkuntza politika berria behar dute: ofizialtasun simetrikorantz eta benetako euskara gaitasunerantz; orain euskaraz ere eskaintzen diren zerbitzuak egonkortu eta bestelako zerbitzuen elebitasuna lortzeko; euskaldunon eskubideak bermatu eta benetako aukera berdintasuna eskaintzeko.

• **Aukera berdintasuna. Hizkuntza aukeratzeko askatasuna**

Administrazio publikoek izaera demokratikoa eta berdintzailea beharko lukete berez. Demokratikoak badira, askatasuna, bederen, herritar zein langile guztien askatasuna, bermatu beharko lukete.

Zerbitzu publikoetan herritarren eta administrazioaren arteko harremanak ezinbestean hizkuntzaren bitartez gauzatzen dira modu kontziente edo inkontzientean.

Horrenbestez, hizkuntzak berebiziko garrantzia dauka administrazio publikoen demokratizazioan. Administrazioak herritarrekiko harremanetan egiten duen hizkuntza hautuak eta herritarrei eskaintzen dien hizkuntza aukeratzeko posibilitateak erakusten dute noraino den demokratikoa administrazioa eta noraino bermatzen duen herritarren askatasuna.

Askatasun hau baliatu ahal izateko, aukeraz gain, gaitasuna ere behar da. Zerbitzu publikoa jasotzeko zein eskaintzeko orduan, harremana zein hizkuntzatan egin erabaki ahal izateko hizkuntza bat baino gehiago jakin behar da. Ez da hori, hala ere, momentu honetan daukagun egoera:

- Euskal herriko zerbitzu publikoetan langile moduan jardun ahal izateko edo erabiltzaile moduan hainbat zerbitzu jasotzeko, nahitaez gaztelania edo frantsesa jakin behar da. Langile eta herritar euskaldunok elebidun edo eleanitz izatera gaude behartuta, erdaldunekin erdaraz egitea beste aukerarik ez daukagu eta; erdaldun elebkarrek, berriz, ez dute elebidun izateko beharrik.
- Erdaldun elebkarrek ez dute inolako askatasunik hizkuntza aukerarik egiteko eta, honetaz gain, herritar edo langile euskaldunak (elebidunak direnak) erdaraz egitera behartzen dituzte.
- Euskal Herriko administrazio publikoetako langile zein arduradun asko eta asko erdal elebakarrak diren unetik ez dituzte herritar eta langile guztien eskubideak eta hizkuntza aukeratzeko askatasuna bermatzen. Administrazioako atal elebkarrek herritar euskaldunen eskubideak eta askatasuna urratu egiten dituzte. Aldiz, administrazioiko atal elebidunak, elebidunak diren unetik, herritar eta langile guzti-guztien eskubideak eta askatasuna bermatu ahal dituzten bakarrak dira: euskaldunenak, elebidunenak eta erdaldunenak, hain zuzen.
- Botere publikoen betebeharra da hori bermatzea, hizkuntza aukeratzeko askatasunaren diskurtso demagogikotik gauzapean praktiko errealerara pasatzea, hain zuzen.

Euskal Herriko administrazio eta zerbitzu publikoetako hizkuntza politika berria

Herri administrazioetan, zeregin publiko eta administratibo guztietan, herritarrei zerbitzu publikoa eskaintzeko zeregin guztietan, hizkuntza ezinbesteko tresna da.

Hizkuntza ezinbesteko tresna den heinean, hizkuntza politika berriaren helburua izango da Euskal Herriko administrazio publikoetan euskara hizkuntza bizia eta normalizatua izatea, une honetan gaztelania edo frantsesa diren modukoa eta maila berdinekoa.

Administrazio publiko guztiak prestatuko dira zerbitzu publiko guztiak euskaraz ere eskaintzeko

Zehaztutako epe baten barruan, prozesu mailakatu baten ondorioz, Euskal Herriko administrazio publikoetan euskara hizkuntza bizia izango da eta herritarrek zein langileek normaltasunez eta naturaltasunez erabiliko dute.

Euskararen normalizazioa benetakoa izan dadin, aginte politikoen babes osoa izango dute euskara normalizatzeko politikak eta normalizazio ekintzek, eta ez dute inolako nahasmenik edo zalantzarik sortuko herritarrengan.

1. OFIZIALTASUNA

Euskarak bizi duen mendekotasun egoeratik berdintasun egoerara igarotzeko benetako babes juridiko berdintzailea onartuko zaio euskarari bere lurralde propio osoan.

Euskal Herri osoan euskararen ofizialtasun simetrikoa bermatuko duen ordenamendu juridikoa garatuko da.

Euskal Herriko administrazio publikoetan euskara ofiziala izango da gaztelania edo frantsesa diren maila berean, hau da, eskubide eta betebeharra izango da. Herritar euskaldunek erdaldunek duten babes juridiko berbera izango dute lan egiteko zein zerbitzu publikoa jasotzeko.

2. KALITATEKO ZERBITZU PUBLIKO DEMOKRATIKOA

Administrazio publikoek, kalitateko zerbitzu publiko demokratikoak eskaini ahal izateko, herritar guztien hizkuntza hautu naturala bermatuko dute, herritar guztien hizkuntz eskubideak eta askatasuna bermatuko dituzte.

Benetako zerbitzu publiko demokratikoa izango da euskaraz ere modu naturalean eskainiko dena.

3. BENETAKO EUSKARA GAITASUNA BERMATU

Euskal Herriko herri administrazioetan langileak zein arduradunak elebidunak izango dira, komunikazio formaletan zein informaletan zerbitzu publikoa inongo arazo barik

euskaraz ere eskaintzeko gaitasuna izango dutenak eta prozesu administratibo guztiak euskaraz ere gauzatzeko gaitasuna izango dutenak.

Horretarako, administrazio publikoetan zeregin eta zerbitzu guztiak normaltasunez eta naturaltasunez eskaini ahal izateko, euskara gaitasun egokia izango dute herri langileek zein arduradunek.

4. EUSKARAZ ERE ESKAINTZEN DIREN ZERBITZUAK BERMATU ETA EGONKORTU

Erakunde publikoetan herritar guztiek hizkuntza eskubideak zein hizkuntza betebeharrak bermatuta izan dezaten, Euskal Herriko herri administrazio bakoitzeko zerbitzu edota zerbitzu atal guztiei hizkuntza kategoría esleitu zaien.

Zehaztutako epe baten buruan zerbitzuak hizkuntz kategoriara egokituko dira, hau da, langileak, arduradunak eta baliabideak hizkuntza kategoriara egokituko dira.

Zerbitzu publiko guztiak bi kategoriatan banatuko dira:

A kategoría: Euskaraz ere lan egin eta zerbitzua eskainiko dituzten zerbitzuak edo zerbitzu atalak

B kategoría: Zerbitzua euskaraz ere eskainiko dituzten zerbitzuak edo zerbitzu atalak.

Lehenengo epealdian bi hizkuntza kategoría horiek egongo dira eta bigarren epealdian B hizkuntza kategoriakoak A kategoriara pasatuko dira.

Behin hizkuntza kategoría esleitu gero, administrazio-atala edo zerbitzua hizkuntza kategoriara egokitzea izango da administrazio publikoaren lehentasunezko zeregina.

Zentzuzko epe baten buruan, administrazioko baliabide guztiak hizkuntza kategoriara egokituko dira

5. ETORKIZUNERAKO INBERTSIOA DIRA EUSKARA NORMALIZATZEKO ERABILIKO DIREN DIRU ETA GIZA BALIABIDEAK

Jendarte erantzukizunean oinarritutako helburuak izango ditu Euskal Herriko herri administrazioak eta erantzukizunez erantzungo du Euskal Herriko jendartearen aurrean.

Euskara delarik Euskal Herriko berezko hizkuntza komuna eta Euskal Herria delarik euskararen lurralde propioa bakarra, euskararen lurraldean zerbitzu publikoak euskaraz ere, normaltasunez eskainiko ditu administrazio publikoak. Eta hori lortzearren erabiliko diren diru eta giza baliabideak etorkizuneko inbertsio moduan hartuko dituzte aginte publikoek.

Diru eta giza baliabide horiek ez dira inondik inora gastutat hartuko, diru-baliabide eta giza-baliabide horiek zerbitzu publiko demokratikoa, herritarren askatasuna eta berdintasun aukerak lortzearren erabiliko baitira.

6. NORMALIZAZIO PLANAK BITARTEKOAK IZANGO DIRA ETA EZ HELBURUA

Ofizialtasun simetrikoak euskarari oinarritzko berme juridikoa emango badio ere, horrek ez du beste barik euskararen normalizazioa ekarriko.

Babes juridiko horren eraginpean normalizazio planak jarriko dira martxan. Baina normalizazio plan horiek ez dira beren horretan helburu izango, administrazio publikoetan euskararen normalizazioa lortzeko bitarteko edo tresna baizik.

Euskara normalizatzeko planak, bitarteko baliagarriak izan daitezzen, argiak izango dira eta ez dute inolako zalantzarik eragingo ez herritarrengan ezta herri langileengan ere.